

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

## 5965

*AGINDUA, 2021eko urriaren 26koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakaria kargutik kentzea xedatzen duena.*

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2012ko irailaren 12ko Aginduaren bidez, Carlos Díaz-Aguado Jalón jauna izendatu zen Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakari.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egiturari eta antolamenduari buruzko uztailaren 12ko 159/2011 Dekretuaren 9.1 artikuluekin bat etorritik, Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordea Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitzen zaio.

Halaber, dekretu horren 9.3 artikuluekin bat etorritik, Institutuko lehendakariak izendatuko du Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakaria.

Horrenbestez, aintzat hartuta ekainaren 29ko 9/2007 Legea, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa, eta uztailaren 12ko 159/2011 Dekretua, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egiturari eta antolamenduari buruzkoa, eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Carlos Díaz-Aguado Jalón jauna kentzea Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakariaren kargutik, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 26a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.